

Erakunde deitzailea:

Bizkaia:xede, irabazi asmorik gabeko elkarte da. Bizkaiko Foru Aldundiaren Berrikuntza eta Ekonomi Sustapena Sailak (D.F.B./B.F.A.) suspertua. Erakundearen helburu nagusia Bizkaian talentu gordetzea, mantentzea eta talentu berri bilatzea da.

Erakundearen kide sortzaileak ondoko hauek dira: Bilbao Bizkaia Kutxa (BBK), Bizkaiko Foru Aldundia, Euskaltel, Iberdrola, Idom, Industria de Turbo Propulsores (ITP), Sener, Deustuko Unibertsitatea eta Euskal Herriko Unibertsitatea.

Bizkaia:xede Erakundeak ametsak, talentu eta ideiak martxan jartzeko gaitasuna duen herrialde baten aldeko apustua egiten du, norbanako giza garapena zein komunitate osoaren garapena suspertuz.

Helburu horren inguruan, Bizkaia:xede Erakundeak, adituak edo gaituak kontratatzeko, Giza:xede, lehenengo deialdi hau aurkezten du. Horren bidez adituen edo gaituen kontratazioa suspertuz gaitasun handiko pertsonak Bizkaiko produkzio sarean integratu nahi da.

Aurrekaria:

Azken urte hauetan, Bizkaiko egoera ekonomikoa nabarmen hobetu da eta hainbat alderditan jadanik Europarekin bat egin dugu.

Bizkaiko ekonomia irekia da eta nazioarteko egoerak nabarmen baldintzatzen du izaera hori. Mundu mailako lehiakortasun eszenatokian sortu berri diren eragileak eta inguruneko baldintza berriak direla eta, adimenean eta berrikuntzan oinarritutako lehiakortasun baliabide berriak bilatu behar dira. Gizartea ekonomia eredu berri baterantz abiatzen ari da eta eraldatze nahiz bilakaera une honetan ezinbestekoa da lehian abantaila berezia ematen diguten ezaugarrien aldeko apustua egitea: Hots, pertsonak, giza balioa eta talentua.

Lisboako 2000ko gailurrean Europa munduko esparru lehiakor bilakatzea ebatzi zen. Lehiakortasun horrek adimena, ezagutza eta berrikuntza izan behar du oinarri eta era berean giza-kohesio zein elkartasun maila handiagoak sorrarazi beharko ditu.

Bizkaiko gizartea iritzi horrekin bat dator, eta adimenean, ezagutzan eta berrikuntzan inbertitzea pertsonengan inbertitzea dela uste du. Horrela, enpresa berriak sortuz eta martxan daudenak indartuz, lurraldeak dituen beharrak asetzeko aberastasun adina sorraraziko delakoan dago.

Bizkaiak apustu trinko eta sendoa egiten du Lisboako estrategiarekin bat datozen lurralde aurreratuekin batera egoteko. Esparru hori lantzeko Bizkaiko Foru Aldundiak aukeratu duen lanabes eta apustua Bizkaia:xede proiektua da. Horren bidez eta Bizkaia 2007 Berrikuntza Planak xedatzen dituen eginbideak jarraituz, berrikuntza eta adimen zein ezagutza prozesuetan adituak diren pertsonak erakarri eta zaintzeko baldintzak sortu gura dira.

“Gaur egun, pertsonak eta adimena erakarri eta zaindu egiten duten lurraldeak baino ez dira ezagutza ekonomia berriaren aitzindariak”

Giza: xede Programa

Xedea: Bizkaian adimen zein gaitasun handiko pertsonak kontratatzeko laguntzak ematea.

2006ko diru horniketa : 336.000 Euro.

Onuradunak: Dirulaguntza horien onuradunak ondoren aipatzen diren Erakundeak lirerateke. Beti ere zerga-egoitza Bizkaian izanez gero.

- ✓ Enpresak
- ✓ Unibertsitateak
- ✓ Elkarteak
- ✓ Fundazioak

Onuradunek nortasun juridikoa izan beharko dute eta zuzenbide publiko zein Gizarte Segurantzako zerga ordain beharrak egunean eduki beharko dituzte.

Baldintza horiek guztiak laguntza eskaeraren unean eta laguntzaren kitapen prozesu osoan indarrean egon beharko dira.

Laguntza jaso dezaketek ekintzak: adimen edo gaitasun handiko pertsonen egindako kontratuak, bi eredu bereiztuz:

1. *Esperientzia duten adimen edo gaitasun handiko pertsonen kontratazioa:* Adimen edo gaitasun handiko pertsonen kontratazioa laguntzeko neurriak. Efektu horietarako adimen edo gaitasun handiko pertsonak Currículum Vitae bikaina zein lanbidean, zientzia edo kultura esparruan esperientzi eta meritu nabarmenak izan dutenak dira.
2. *Gazte bikainak kontratatzea:* Lanbidean hasteko eta ikasketak espediente bikaina duten gazteei lan kontratuak egiteko laguntza neurriak.

Kontratazioak 2006an zehar burutu beharko dira eta edozein kasutan ere 2006ko abenduaren 31 baino lehen.

Eskariak:

Eskabideak gure bulegoetan, astelehenetik ostiralera, eta goizeko 9.00 eta 14.00ak zein arratsaldeko 16.00 eta 18.00ak bitartean eskura daitezke. Halaber gure Web gunean eskura daitezke: <http://www.bizkaiaxede.com>.

Eskabideak eta eskatutako dokumentazio guztia Bizkaia:xede Erakundeak Bilboko Elkano kalean dituen bulegoetan aurkeztu beharko dira. (Elkano 9 – 2. 48008 Bilbo) edo bestela gure e-posta helbidearen bitartez: info@bizkaia.xede.org.

Eskabideak eta eskatutako dokumentazioa aurkezteko epea 2006ko apirilaren 28an amaituko da.

Eskabideak behar den moduan aztertzeko, ulertzeko eta baloratzeko Bizkaia:xede Erakundeak informazio edo dokumentazio osagarria eska diezaioke eskatzaileari.

Hauek dira eskabidea aurkez dezaketen interesatuak:

1. Lanpostu hutsa eduki eta lanpostu hori betetzeko pertsona egokia ez duten Erakundeak.
2. Lanpostu hutsa eduki eta lanpostu hori betetzeko pertsona egokia aukeratu duten Erakundeak.
3. Giza:xede programaren aukeraketa prozesuan parte hartu nahi duten adimen edo gaitasun handiko pertsonak.

Erakunde bakoitzak egoki jotzen duen beste eskabide aurkez dezake. Eskatutako baldintza guztiak bete eta egokitzat joz gero, Bizkaia:xede Erakundeak laguntza bat edo gehiago eman diezaioke Erakunde berari.

1. eredua: Esperientzia duten adimen edo gaitasun handiko pertsonen kontratazioa:

Kontratuak bete behar dituen baldintzak:

- Lanpostuaren zereginetan kontratatuak erakusten duen esperientzia eta balioa.
- Prestigiosko Curriculum Vitae-duna edo ospe handikoa izatea
- Lanpostuaren eta kontratatuaren gaitasunen arteko egokitasuna.

Esperientzia duten adimen edo gaitasun handiko pertsonak kontratatzeko laguntzak jaso nahi duenaren eginbeharrak.

- Erakundeak kontratatu duen adimen edo gaitasun handiko pertsona Erakundearen lanean eta funtzionamenduan erabat integratua dagoela bermatzea.
- Lan kontratu finkoa.
- Gutxienez 40.000 euroko urteko soldata gordina. Soldata txikiagoak ere onar daitezke sektorearen edo Erakundearen ezaugarri propioen arabera justifikatzen badira.
- Lan harremanaren gutxieneko iraupena 3 urtekoa izatea.
- Lanpostuaren zereginak eta ezaugarriak argiak eta zehatzak izatea, kontratatzailearen jardura eta estrategia helburuekin kontsonantzia zuzena izanez.
- Kaudimen nabarmeneko Erakundea izatea.
- Gizarte Segurantza nahiz beste erregulazio erakunderi ordaindu beharrekoak zein zerga ordain beharrak egunean daudela egiaztatu beharko da. Egoera hori egiaztatu beharko da, dirulaguntza eskuratuko dela jakinarazten den unean, zein dirulaguntza zatika eskuratuz gero, dirulaguntzari dagokion ordainketa bakoitza jasotzen den unean.
- Nazioarteko zein nazio mailako beste edozein administrazio, erakunde publiko zein pribatuk hemen aipatzen diren helburu berberak lortzeko beste dirulaguntzaren bat emango balu laguntza hori jaso dela jakinaraztea Bizkaia:xede Erakundeari.

Baldintza horiek guztiak betetzen dituzten eskabideen artean lehentasunak jartzeko ondoko irizpideak jarraituko dira:

- Erakundearen estrategiaren ikusmira eta aukeratutako pertsonaren egokitasuna.
- Erakundeak Bizkaiko garapenarekin duen konpromisoa.
- Erakunde berrian zein Bizkaiko produkzio sarean kontratatutako pertsonen egiten duten ekarpen berezia eta lan meritua.
- Kontratatzeko adimen edo gaitasun handiko pertsona emakumea izatea.
- Kontratatzailerik hautagaia proposatzea.

Laguntzaren diru kopurua zehazteko, besteak beste, ondoko baldintzak kontuan hartuko dira: Pertsonaren balioak eta ezaugarriak, kontratazioaren baldintza ekonomikoak, eta Bizkaia:xede Erakundeak, aukeratutako pertsonak Bizkaiko produkzio eta giza sarean egiten duen ekarpenaren balorazioa.

Pertsona kualifikatua kontratatzekeo laguntzak baliogabetzeko zioak:

1. Kontratatzaileak ezarritako hiru urteko gutxieneko epea igaro baino lehen lan kontratua etetea. Kasu horretan eta lan harremana eteteko bidezko kaleratze edo arrazoi objektiboak egon ezean, Erakundeak ordura arte, hots, lan harremana amaitu arte, jasotako dirulaguntza itzuli beharko du.
2. Laguntza eman zen unean eskatzaileak edo kontratatutako pertsonak eskatutako baldintzak betetzen ez zituela egiaztatzea, edo baten batek laguntza jasotzeko ezintasunaren bat zuela egiaztatzea. Kasu horietan laguntza eskuratu duen Erakundeak ordura arte eskuratutako laguntza itzuli beharko luke.

2. eredu: Gazte bikainak kontratatzea:

Kontratuak bete behar dituen baldintzak:

- Ikasketa tituluekin lotuta dagoen lanposturen batean aritzeko pertsonak egiten duen lehenengo kontratu mugagabea izatea.
- Ikasketa espediente bikaina edukitzea.
- Pertsona egokia izatea lanpostu horretan aritzeko.
- Bi urteko prestakuntza edo trebakuntza prozesuak burutzeko konpromisoa, hobe atzerrian bada.
- Handik itzuli eta gutxienez bi urtetan laguntza eskatu duen Bizkaiko erakundearen egituraren sartzeko konpromisoa.
- Laguntza eskatu duen erakundearekin gutxienez bost urteko lan harremana mantentzeko konpromisoa. Bost urte horietatik bi prestakuntzazkoak izango dira.

Gazte bikainak kontratatzeko laguntzak jaso nahi duenaren eginbeharrak.

- Erakundeak kontratatu duen gazte bikaina erakundearen lana eta funtzionamenduan erabat integratua dagoela bermatzea.
- Kontratatzaileak bi urteko prestakuntza edo trebakuntza prozesuak burutzeko konpromisoa adierazi beharko du, hobe atzerrian bada.
- Prestakuntza edo trebakuntza ikastaroa Bizkaitik kanpo dagoen kalitate handiko ikastegiren batean egiten bada hobe.
- Kontratatzaileak gazte bikainaren ikasketak finantzatuko ditu.
- Gazte bikainaren prestakuntza Bizkaitik kanpo dauden filialetan edo beste erakunde batzuetan burutzen duten erakundeen kandidaturak ere kontuan izango dira (“karrerako plan postua”).
- Aukeratutako prestakuntza edo trebatze prozesua eta Erakundearen behar estrategikoen artean lotura zuzena egon beharko da.
- Lan harremanaren gutxieneko iraupena bost urtekoa izango da, prestakuntza edo trebatze prozesuak barne izanik.
- Lanpostuaren zereginak eta ezaugarriak argiak eta zehatzak izatea, kontratatzailearen jarduera eta estrategia helburuekin kontsonantzia zuzena izanez.
- Hautagaiaren urteko soldata gordina kasu bakoitzean sektorean aplikatu beharreko lan hitzarmenaren arabera ezarriko da.
- Kaudimen nabarmeneko Erakundea izatea.
- Gizarte Segurantza nahiz beste erregulazio erakunderi ordaindu beharrekoak zein zerga ordain beharrak egunean daudela egiaztatu beharko da. Egoera hori egiaztatu beharko da, dirulaguntza eskuratuko dela jakinarazten den unean, zein dirulaguntza zatika eskuratuz gero, dirulaguntzari dagokion ordainketa bakoitza jasotzen den unean.
- Nazioarteko zein nazio mailako beste edozein administrazio, Erakunde publiko zein pribatuk hemen aipatzen diren helburu berberak lortzeko beste dirulaguntzaren bat emango balu laguntza hori jaso dela Bizkaia:xede Erakundeari jakinaraztea.

Baldintza horiek guztiak betetzen dituzten eskabideen artean lehentasunak jartzeko ondoko irizpideak jarraituko dira:

- Erakundearen estrategia ikusmira eta aukeratutako pertsonaren egokitasuna.
- Erakundeak Bizkaiko garapenarekin duen konpromisoa.
- Kontratuak burutuko dituen prestatze edo trebatze ikasketen balorazioa.
- Kontratuaren ikasketa espedientea eta Currículum Vítaea.
- Kontratua emakumea izatea bereziki baloratuko da.
- Kontratazaileak hautagaia proposatzea.

Laguntzaren diru kopurua zehazteko, besteak beste, ondoko baldintzak kontuan hartuko dira: Pertsonaren balioa eta ezaugarriak, kontratazioaren baldintza ekonomikoak, eta Bizkaia:xede Erakundeak aukeratu pertsonak Bizkaiko produkzio eta giza sarean egiten duen ekarpenaren balorazioa.

Gazte bikainak kontratazeko laguntzak baliogabetzeko zioak:

1. Kontratazaileak ezarritako hiru urteko gutxieneko epea igaro baino lehen lan kontratua etetea. Kasu horretan eta lan harremana eteteke bidezko kaleratze edo arrazoi objektiboak egon ezean, Erakundeak ordura arte, hots, lan harremana amaitu arte, jasotako dirulaguntza itzuli beharko du.
2. Laguntza eman zen unean eskatzaileak edo kontratatutako pertsonak eskatutako baldintzak betetzen ez zituela egiaztatzea, edo baten batek laguntza jasotzeko ezintasunaren bat zuela egiaztatzea. Kasu horietan laguntza eskuratu duen Erakundeak ordura arte eskuratutako laguntza itzuli beharko luke.

Aukeraketa eta ebaluazio prozesua:

Eskabideak aurkezteko epea amaiturik (2006ko apirilaren 28a) deialdiaren baldintzak bete eta pertsona kualifikatuak kontratazeko laguntzak eskura ditzaketen erakundeak hautatuko dira.

Eskabide bakoitzak lortutako puntuazioa ikusirik, hautagaien lehenengo sailkapena egingo da. Hautagai horiek finalistak izango dira.

Horretarako bereziki izendatutako epaimahaiak laguntzak banatuko ditu finalistaren artean. Epaimahaiak, egokitzen joz gero, hautagaiak dei ditzake buruz buruko elkarrizketa bat izateko haiekin.

Laguntzak emateko prozedura:

Laguntzak epean aurkeztu diren eskabide guztien arteko meritu lehiaketaren bidez emango dira. Txosten honetan adierazten diren irizpideak aplikatuz puntuazio gehien lortuko duten eskabideek laguntzak jasoko dituzte. Izan ere laguntza osoaren muga diru kopurua 336.000 eurokoa da, laguntzaren diru horniketa atalean aipatu denez.

Hautagaien ebaluazio prozesuan lortutako puntuazioaren arabera Bizkaia:xede Erakundeak eskatzaile bakoitzarentzat laguntza ezberdinak ezarri ditzake.

1.eredua: Bizkaia:xede langile kualifikatua kontratatzeke Bizkaia:xedek egiten duen diru ekarpena.

Eskatzaileek baldintza guztiak bete eta gero Bizkaia:xederen laguntza jasoko dute. Laguntza horren kopurua hautagai eta eskatzaileak ebaluazio prozesuan lortu duen puntuazioaren arabera zehaztuko da.

Bizkaia:xede Erakundearen laguntza ezarritako gutxieneko lan harremaneko hiru urteetan zehar bananduko da. Laguntzak ezin du lan ituneko lehenengo hiru urtetan kontratatuak jasoko duen soldata osoaren %50a gaintitu. Laguntza hiru urtetan emango zaie onuradunei: laguntzaren %50a lehenengo urtean, %30a bigarren urtean eta %20a hirugarren urtean.

Laguntzak ordaintzeko era onuradunekin kasuz kasu negoziatuko da.

2.eredua: Bizkaia:xede gazte bikainak kontratatzeke Bizkaia:xedek egiten duen diru ekarpena:

Eskatzaileek baldintza guztiak bete eta gero Bizkaia:xederen laguntza jasoko dute. Laguntza horren kopurua hautagai eta eskatzaileak ebaluazio prozesuan lortu duen puntuazioaren arabera zehaztuko da. Laguntzak ezin du trebakuntza edo prestakuntza bi urteetan kontratatutako gazteak jasoko duen soldata gordin osoaren %100a gaintitu.

Izan ere Laguntza gazte bikainak atzerrian egingo duen prestatze edo trebatze prozesuko bi urteetan zehar banandu eta emango da.

Laguntzak ordaintzeko era onuradunekin kasuz kasu negoziatuko da.

Eskabideen ebaluazioa:

Eskabideen balorazioa ondoko baremoa jarraituz burutuko da:

1. Kontratatuak adierazitako merituak, egokitasuna, balioak eta ezaugarriak: 10 puntura arte.
2. Konpromisoa Bizkaiko garapenarekin, Bizkaiko produkzio eta giza sareari egiten zaien ekarpena eta Erakunde kontratatzailearen egitasmo estrategikoa: 10 puntura arte.
3. Garatu behar den proiektuak nahiz atzerrian burutuko den prestakuntza prozesuak Bizkaia:xede Erakundearen helburu estrategikoekin daukan egokitasun maila: 20 puntura arte.

Hautagai bik edo gehiagok puntuazio bera lortuz gero laguntza emateko ondoko irizpideak jarraituko dira:

- Erakundeak Bizkaiko garapenarekin duen konpromisoa.
- Kontratatuak landuko duen proiektuak zein erakunde berak Bizkaiko produkzio sareari egiten dio ekarpen neurria.
- Bizkaia:xede Erakunde edo deialdiaren epaimahaiak egindako elkarrizketen emaitza.
- Emakume kualifikatuak kontratatzea baloratuko da.

Bizkaia:xede Erakundeak deialdiaren laguntzak eman gabe utz ditzake ondoko zioengatik:

- Hautagai faltagatik.
- Aurkeztutako eskabideek Elkartearen asmoak edo helburuak ez betetzeagatik.

Ebazpen prozesua:

Deialdiari buruzko ebazpena eta edozein kasutan emango den ala ez den laguntza kopurua hautagaiak lortu puntuazioa eta epaimahaiak baloratutakoaren arabera zehaztuko da. Bizkaia:xede Erakundeak hilabeteko epean hautagai guztiei onuradunen behin betiko zerrenda eta laguntza kopuruak jakinaraziko dizkie eta ordainketak egiteko prozedurari hasiera emango dio. Informazio hori Erakundearen Web gunean argitaratuko da.

Deialdi honetan langile kualifikatuak kontratatzeko laguntza jaso ez duten hautagaiek eskabide berria aurkezteko aukera izango lukete Bizkaia:xede Erakundeak deialdi berria egingo balu. Hala ere, deialdi berri horretan eskatutako baldintzak eta betebeharrak mantentzen dituztela egiaztatu beharko dute.

Laguntza programaren iraunaldia:

Deialdia 2006ko apirilaren 28ra arte egongo da zabalik. Ebazpena hautatutako guztiei zuzenean jakinaraziko zaie eta <http://www.bizkaiaxede.com> Web gunean argitaratuko da, 2006ko ekainaren 1a baino lehen.

Eskabideak jasotzeko epea amaiturik (2006ko apirilaren 28a) eta lehenengo deialdia hutsik geratzekotan, edo 336.000 euroko diru horniketa osoaren zati bat geratzekotan, edo Erakundeak eta bere kideek 2006ko diru horniketa handitzea erabakiz gero, Bizkaia:xede Erakundeak deialdi berriak egin ahal izango ditu.

2006ko apirilaren 28ko deialdi honetan eskabidea aurkeztu eta hautatuak izan ez diren kandidaturak hautagai bera edo beste bat aurkezteko aukera izango dute Bizkaia:xede Erakundeak pertsona kualifikatuak kontratatzeko egingo duen hurrengo deialdian.

2006an edo hurrengo urteetan deialdi berriak egotekotan Bizkaia:xede Erakundeak txosten honetan xedatzen diren irizpideak erabil ditzake edo neurri batean edo bestean horiek guztiak aldatu ahal izango ditu.

Bateraezintasunak:

Eskatzaileak jaso ahal duen gainontzeko laguntzekin ez dago inolako bateraezintasunik. Halaber, Nazioarteko zein nazio mailako beste edozein administrazio, Erakunde publiko zein pribatuk hemen aipatzen diren helburu berberak lortzeko beste dirulaguntzaren bat emango balu laguntza hori jaso dela jakinarazi beharko zaio Bizkaia:xede Erakundeari. Laguntza hau indarrean dagoen bitartean helburu bera duten dirulaguntza guztien batuketara ezin izango da kontratatutako pertsona kualifikatuak eskuratuko duen soldata gordin osoa baino handiagoa izan. Bizkaia:xede Erakundearen laguntza indarrean dagoen bitartean onuradun batek txosten honek azaltzen dituen helburuetarako jasotako dirulaguntza guztien batura kontratatutako pertsona kualifikatuak eskuratuko duen soldata gordin osoa baino handiagoa izatekotan kasua baloratuko da eta behar izanez gero laguntza murriztuko da ezarritako mugara.

Laguntzen ordainketa:

Emandako laguntzaren ordainketa onuradunaren eta Bizkaia:xede Erakundearen arteko negoziazioaren emaitzen arabera egingo da. Edozein kasutan ere laguntzaren lehenengo ordainketa kontratatutako pertsona kualifikatua Gizarte Segurantzako erakundean alta hartuta denean burutuko da.